

**BILBOKO LIBURU-AZOKAK
2004KO 'URREZKO LUMA'**

IDAZLE ETA IKERTZAILE BAT LIBURU ARTEAN BETI. JOSE ANTONIO ARANA JAUNAREN GORAIPAMENEZ

Henrike Knörr

*Bilbon, 2004ko ekainaren 8an,
Urrezko Lumaren emate-ekitaldian*

Idazle on baten goraiaparena egitea egokitu zait, Bilboko Liburu Azokak Jose Antonio Arana Martija jaunari eskaintzen dion *Urrezko Lumaren* emate-ekitaldian. Pozik hartu nuen sariaren berria, eta pozik dihardut gaur, zin-zinez, nahiz eginkizuna ez den erraza, hainbeste eta hain handiak baitira Arana jaunaren merezimenduak. Baina nekez esan niezaiokeen ezetz langintza honi. Izan ere, batetik, on da merezimenduak dituen jendaratean aitortua izatea. Eta bestetik, adiskide dut sariduna aspaldidanik, eta bidezko da adiskideen ohore-aitortze orduetan, pozteaz gain, aitortze horretan laguntzea.

Idazle eta ikertzaile bikaina dugu Jose Antonio Arana. Idazlanen zerrenda luze-luzea da, bai euskaraz, bai erdaraz. Idazlan mamitsuak beti, gai hone-taz eta hartaz, dela historia, dela literatura, dela musika edo folklorea. Ehunka ezkuturen argitzaile izan da gure omendua. Idazlan horietariko bat ere ez dago nolana hika idatzia, presaren presaz moldiztegiara eramana. Ez. Guztiak dira txairo eta dotore idatziak. Egileak arreta handiz ikusi eta berrikusi ditu testu guztiak, deus ere trakets, zintzilik edota bestek konpontzeko utzi gabe (eta ongixko dakigu axolagabekeria noraino dagoen zabaldua idazleen artean).

Sakon ikertzeaz eta dotore idazteaz landa, bada Jose Antonio Aranagan alderdi bat azpimarratu behar dena: liburu artean bizi izan da gaztetandik. Irakurtzea maite izan du, eta maitasun hori beroa eta handia da. Nondik dator kio irakurzaletasuna? Berak argi du iturburua: Andres Mañarikua historialaria. Jakina, Aranak ez du beti izan aldeko giroa irakurtzeko. Halaz guztiz, gauza bitxiren bat gertatu zaio mesedegarri, hala nola Oteizaren *Quosque tandem..!* argitaratu berri zenean: kartzelara liburu sartzan utzi zioten, titulua latinez ikusirik elizako zer edo zer izango zelakoan.

Bestalde, liburuak izan ditu ikergai Arana jaunak. Gasteizko apaizgaitegiak liburutegi joria katalogatzean hura aritu zen Jose Zunzunegiren laguntzaile. Eta Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* lan erraldoiaren ontzean txartelgile zintzo aspergaitz jardun zuen, garbiro zekusalarik egiteko haren garrantzia. Agian txartel horietako batzuk ziren gero behin, Lekeitiorako bi-

dean, bazter batean aurkitu zituenak, Jonen autotik, nola ez dakigula, eroriak. Jon Bilbaorekiko leialtasunaren ispilu, horra beste adibide bat: askatasun-aroa itzultzen hasi zenean, batere zalantzarik gabe onartu zuen nik proposatu niona: *Eusko Bibliographia* erakundetzean parte hartzea. Oinarri-oinarrizko lan haren etorkizuna segurtatzea zen gu bion eta beste zenbaiten asmoa. Zoritzarrez, ahalegin haiek ez zuten agintarien aldetik inolako oihartzunik jaso, eta urte batzuen buruan pikutara joan zen hura guztia.

Bibliografiak eta katalogoak prestatzean eta osatzean Jose Antonioren lana ez da sekula eten, Bonaparteren eskuizkribuak eta argitalpenak izan, zein euskal kristau ikasbideak edo Herriko musika. Gure ondare aberatsa biltzea, apurrena ere ez galtzea: horixe izan du beti kezka, irriki eta amets. Urteetan Euskaltzaindiaren liburuazain izaki, talaia ederra izan du. Baina talaiaren edertasuna, hein handi-handi batean, hari dagokio, langile nekaezin eta erneari.

Dena esan behar badugu, mingarri zitzaion eta zaio ondare horrekiko hainbat jende nola ageri den ahanzkor, are erdeinukor. *Les illusions perdues*, Balzac-ek bezala, esan genezake guk ere bizi dugun garaiaz. Eskola, maila guztietan, neurri handi batean, eta hainbat bide, geure esku ditugularik, izugarria baita ahanztura, eta ikaragarria ezjakintasuna. Inor ez da jakintsu sortzen, eta bizi guztian ikasirik ere, beti izango dugu zer ikas. Baina ezin eraman daiteke giro hau, zeinetan ezjakinak lotsagabeki ibiltzen baitira, maiz txalotuak eta ez gutxitan gizarte-eredu...

Zazpi Kaleetan garenez gero, beste hau esan nahiko nuke, labur bada labur. Azkueren jarraitzaile, miresle, lan-biltzaile, oroimen-gordetzaile, biografiagile, izan da Jose Antonio Arana. Baina, denbora berean, Unamuno zuen aldioro eskura, mireste-gai, hausnarketa-eragile. Salamancako errektorearekiko zorra sarritan aitortu du gaurko gure saridunak. Arrazoiz, gaineratuko dut, badaezpada. Izan ere, azken urteotan ugaldutako baitira intelektuak edo intelektual ustezkoak, Unamuno-zale (omen) direnak, Unamuno, euskaltzaitasuna, Herri honen askatasuna, euskaldunen arteko elkartasuna, demokrazia-bidea eta liberealtasuna, zaku desberdinetan sartzen dituztenak, ezin batuzkoak, elkarren etsai. Ez, jaun-andreak, kolore batekoak edo bestekoak izan. Utikan zuen *Syllabus* horiek, zuen gaitzeste-adierazpen eta zerrenda tristeak. Azkue bezala, Unamuno ere guztiona da, eta guk osorik nahi dugu gure iragana, bere argizal guztiekin. Ez bekigu iragan horretatik ez orainetik ezer lapur ez ken. Ez dugu nahi ondare hori pobreturik eta txiroturik ikustea. Euskal kultura osoa nahi dugu, eta horrela etorkizun hobea izango du gure Herriak, munduaren aurrean.

Goresmenak Jose Antonio Arana jaunari, goresmenak eta osasun ona, bizi luzea opatzen diodalarik, guztion mesedetan.